

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida



www.zizurkil.com

noviembre 2010 | 86 . zenbakia | UDAZKENA

Aurrera Plaza 3 | 20159 ZIZURKIL | 943 692495



KULTURA:

Santa Zezilia

2010-11-18: 17:00ean Dultzaina Kalejira Villabonan eta 18:00ean Trikitixa Kalejira Villabonan.

2010-11-20: Loatzto Musika Eskolako ikasle guztien jaialdia Anoetan: kontzertuak, bazkaria, e.a.



DIRULAGUNTZEN BIGARREN ZATIAREN ZURITZEA:

Herriko elkarteek Udalak 2010. urtean eman dituen dirulaguntzen zuritzea egin beharko dute urtea amaitu aurretik, urteko ekitaldien memoria eta fakturak aurkeztuz. Dokumentazio hau aurkeztu ondoren, Udalak dirulaguntzaren %25a ordainduko die.

KZ GUNEA

Tutoritzak azaroaren 4 eta 18an 16'00etatik 20'00etara izango dira.

Euskera

TEODORO HERNANDORENA IX. IPUIN LEHIAKETA: Klean dira dagoeneko oinarriak. Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo herritarrek parte hartu ahal izango dute eta bost maila ezberdin antolatuta dira adinen arabera (A. Maila: 6-8 urtekoena; B. Maila: 9-11 urtekoena; C. Maila: 12-13 urtekoena; D. Maila: 14-16 urtekoena eta E Maila: 17 urtetik gorakoena). Lan bakoitzaren hiru kopia entregatu beharko dira azaroaren 18a bitartean, egun hau barne, eguerdiko 14'00ak baino lehenago Zizurkilgo Udal Bulegoetan. Oinarriak ere eskuragarri daude bertan.

Zure izen-abizenak euskal grafiara aldatu nahi?

Orain erraza eta azkarra da. Aurrera Plazako Udal Bulegoetan hurrengo agiriak aurkeztu behar dira:

- Errolda agiria (bertan egingo dizugu).
- Jaiotza agiri literala. Norberaren jaiotza agiria dagoen errejistroan ematen dute. Bake epaitegi bidez ere eska daiteke.
- N.A.N.aren fotokopia.
- Familia liburua (ezkondua egon edo seme-alabarik izanez gero).

Informazio gehiago: Euskara Zerbitzuan (943-692495 edo bulegoa@zizurkil.com).

Seme-alaben jaiotza euskaraz erregistratu nahi?

Legeak, 2005 urtetik aurrera, haurrak tokian tokiko hizkuntza ofizialetan erregistratzeko aukera ematen du, gure kasuan euskaraz.

Zuen seme-alabaren jaiotza gertu badago eta euskaraz erregistratu nahi baduzue, Uemara (943260372) edota Behatokira (902194332)

jo dezakezue informazioa eskuratzeko.

KIROLA:

20-11-2010 HOMENAJE AL PRIMER CORREDOR VASCO DEL TOUR en la Sociedad Urkamendi.

Urkamendi Elkartean. Aurtengoan 25. aldiz antolatuko da eta 25 urteotan omenaldia jaso duten txirrindulariek hartuko dute parte.

11:30ean ibilbidea bizikletaz herrian zehar txirrindulari profesionalekin batera (Indurain, Marino Lejarreta, Haimar Zubeldia, Mikel Astarloza, Joseba Beloki, Abraham Olano...).

Ondoren ginkana plazan.

14:00ean Urkamendin omenaldi bazkaria.

ZIZUKILGO KIROLARIEI OMENALDIA:

Zizurkildar kirolari txapeldunei errekonozimendu xume bat egingo zaie abenduan antolatzen den KIROL ASTEAREN barnean. Errekonozi-mendu hau jasotzeko baldintzak hauexek dira: Zizurkildarra izatea, Zizurkilen bizitzea edo Zizurkilekin harreman berezia izatea, 16 urte edo gehiago izatea eta Gipuzkoako txapelketa bat edo goragoko kategoriako txapelketa bat irabazi izana edo garrantzi berezia duen probaren batean oso ondo ibili izanagatik edo hau irabazteagatik. Proposamenak edozein herritarrek bidali ditzake Udaletxeko Kirol Zerbitzura (Zizurkilgo Udal Bulegoak, Aurrera Plaza 3, 20159 Zizurkil. Tel.: 943-692495. Posta elektronikoa: kultura@zizurkil.com).

INGURUMENA:

ZUREKIN EDONORA! POLTSA BERRERABILGARRIAK

Erabil ezazu erosketak egiteko zure etxean jasoko duzun oihalezko poltsa tolesgarria.

Gainera, kanpainen parte hartzen duten dendetan leihaketa batean parte hartzeko aukera emango dizu.



BESTELAKOAK:

2010-11-13: GAZTAIN JATEA Zizurkil Goian.

2010-11-12: SAN MILLAN EGUNA

2010-11-21: "JUBILATUEN EGUNA"
ospatuko du Elizpe Jubilatuen Elkartek.

2010-11-30: GAZTAIN JATEA Elizpe Jubilatuen Egoitzan.

